

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluak 2015-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasunaren Plan berria baliozkotu du

Nafarroako Erantzukizun Sozialaren Kontseilua sustatzea erabaki du ere

Jueves, 14 de mayo de 2015

Nafarroako Lan Osasunaren III. Plana gaur goizean baliozkotu du Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluak, Yolanda Barcina Lehendakaria buru izan den bilkura batean. Bertan, Osasun kontseilari Marta Verak behin betiko testua aurkeztu du jendaurreko aldiran egindako ekarpenekin.

Sei jarduera-lerrok osatzen dute plana, eta honako hauekin lerrokatuta daude: 2014-2010 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasuneko arloko Europako Estrategiarekin, eta 2015-2010 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Espainiako Estrategiarekin, eragile sozialekin berriki onartu eta izenpetu dena.

Berrikuntzen artean, agiriak barneratzen du, neurriak ezartzea, alde batetik, prebentziozko zerbitzuen nahiz Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritutako mutuen osasun-jarduera kontrolatzeko, eta bestetik, ematen dituzten kalitatea kontrolatzeko. Planaren jarraipena Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuko Gobernu Kontseiluak egingo du. Plan horren izaera dinamikoari esker, lehenetsuna finkatu daitezke lan-baldintza berrien eta araudi-aldaketan arabera, hura indarrean dagoen bitartean.

Gogora ekarri behar da, Nafarroako Gobernuak ISPLNek egindako 2015-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasunaren III. Planaren berri apirilaren 15eko bilkuran izan zuela. Agiri estrategiko baten modura prestatzen da alor horretako jarduerak indartzeko, prebentzio eta aholkularitzako arloetan eta, berrikuntza modura, hezkuntzakoan, Foru Komunitatean curriculumeko ikasgaia izan zedin proposatuz hezkuntzako maila guztietan. Gainera, agintariei, laneko ezbehar-maila handiko sektoreak gehiago kontrolatzera behartzen die,

Erantzukizun Soziala sustatzea



Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluak Nafarroako Lan Osasunaren Plana baliozkotu du.

Laneko Osasun Plan berria baliozkotzeaz gain, Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluak bilkura berean Nafarroako Erantzukizun Sozialaren Kontseilua sortzea erabaki du. Haren helburuen artean, erantzukizun zibilari buruzko foro bat eratzea nabarmendu behar da (InnovaRSE Sarean sartuta dago), Nafarroako RS Suspertu, Sustatu eta Bultzatzeko II. Programa Orokorra sustatuta.

Foro hori enpresa eta sindikatueta erakunde adierazgarriek, administrazio publikoek eta erantzukizun sozialeko arloan ordezkariak aitortua duten beste erakunde batzuek osatuko dute, eta Nafarroako RD garatzeko erreferentzia-esparru modura balioko du.

Elkarrizketa Sozialeko Kontseilua

Iragan abenduan eratutako Elkarrizketa Sozialeko Kontseilua Gobernuak eta eragile sozial nahiz ekonomiko adierazgarriek osatzen dute. Gaurko bilkuraren buru Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina izan da, eta bertan parte hartu dute gainera, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak; Osasun kontseilari Marta Verak, CENeko lehendakari José Antonio Sarríak; eta UGT eta CCOO sindikatueta idazkari nagusi Javier Lecumberrik eta Raúl Villar-ek, hurrenez hurren, beste ordezkari batzuen artean.